

DATORRENA

Agintariek herriari zor diotena

MAITE UBIRIA BEAUMONT > 3

INGURUMENA: Klima aldaketaren aurrean arrakasta izateko baldintza guztiak betetzen ditu dragoitxoak > 10

2022ko uztailaren 30a | XVI. urtea • 784. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



LIBIA ETA MEDITERRANEOA, EUROPARA BIDEAN BI AMESGAIZTO

MUGARIK GABEKO MEDIKUEK 3.100 LAGUNETIK GORA ERRESKATATU ZITUZTEN MEDITERRANEOAN 2021-2022 ARTEAN. LIBIATIK ABIATU ZIREN EUROPARANTZ. BATZUK IRITSI DIRA, BESTE MILAKA BATZUK EZ. > 4

Virginie NGUYEN HOANG | MSF



10



14



**Libia eta Mediterraneoa, Europara
iristeko igaro beharreko bi
amesgaizto askorentzat** 04

**Dragoi txiki bat egongelako
horman: Euskal Herrian bizileku
egokia bilatu duen narrastia** 10

**Euskal Herriko erretratuaren artea
ikusgai Donibane Lohizunen** 14

**Batelerak, Pasaia munduan famatu
egin zuten portuko langile
nekaezinak** 18

**Juantxo Egañaren Behatxulotik:
Pierre Loti Hendaian, hondartzako
frontoian pilotan jokatzen** 23



18



22

SINADURAK:

- 03 **Maite Ubiria Beaumont:**
Agintariek herriari zor dioten
obedientzia ager dezaten
- 07 **Unai Gaztelumendi**
- 08 **Saioa Aginako Lamarain:**
Eredu gara
- 09 **Iñaki Altuna:** «Arazo
nazionala zen, eta da,
bizkarrezurra»
- 16 **Ana Elozegi Serna:**
Hartu eta emanak, harremanak
- 17 **Miren Jone Lizarzaburu:**
Osasungintza lodifoboan ezin
kabitu!
- 21 **Miren Azkarate Badiola:**
Anekdotikoa ohiko bihurtzen
denean
- 21 **Antton Izagirre:**
Memoria kontuak
- 22 **Nagore Barrena Oruechabarria:**
Zientziaren demokratizazioa



{ datorrena } **Maite Ubiria Beaumont**

Agintariek herriari zor dioten obedientzia agertu dezaten

Txaranga eta karrika dantzaren erritmoan aurki despedida egingen diogu hilabeteari. Uztaila badoa, eta utzitako uztari neurria hartzea ez da sobera, mendi eta hondartzetan argi izpiek laztanduko gaituzten zain. Ezinbestean, herritarren bultzadari esker antolaturiko desobedientzia ekimenek markatu dute ikasturtearen amaiera Ipar Euskal Herrian.

Hezkuntza alorretik hasita, Emmanuel Macronek bere lehenengo agintaldian izendatu zuen Michel Blanquer ministroak frantses Legebiltzarrean lan handiz eratutako kontsentsuari muzin eginez, «Molac legea» baztertzeko erasoaldia itzaletik antolatu zuen. Konstituzio Kontseiluak babestu zuen lege aldaketa zapuzteko jokaldia baina Pariseko aginte postuetan aurreikusitako etsipen sindromea ez zen nahi bezala zabaldu. Guztiz kontrakoa, hezkuntza sare guztien sostenguz, gehiengo politiko eta sozialari norabidea finkatzeko moduko manifestazio erraldoia egin zuten Baionan. Orduz geroztik heldu diren erabakiak ez lirateke ulertuko abiapuntu hori aintzat hartu gabe.

Azterketak euskaraz egin ahal izateko borroka luzea eraman dute Ipar Euskal Herriko ikastolek. Behin-behineko garaipenak heldu ziren azkeneko urteetan. Izan ere, lorpen txikiak ere auzitan eman dituzte macronzaleek.

Brebetaren kari, azterketak euskaraz egin dituzten ikasleak kaltetuak izan dira aurten, berriro ere, euskara ez zekiten zuzentzaileek zientzietako proba ez zutelako baloratu. Alta, Baionako hezkuntza ikuskaritzan gurasoek eta irakasleek egin zuten itxialdiak zarrapoa bestelako giltza batekin irekitzeko aukera irudikatu zuen. Hezkuntza Ministerioak ikasle euskaldunei adierazitako errespetu faltaren aurrean diploma sinbolikoa banatu zien Euskal Elkargoak. Herri eragile eta erakundeen arteko elkarlanaren eraginez irailean Hezkuntza Ministerio-

an berriz ere elkarrizketak abiatuko dira euskarazko hezkuntzari berme juridiko eman nahian.

Hezkuntza alorrean bezala, gizartearen hauspoa giltzarria izan da Ipar Euskal Herriko hautetsi gehienek duela hamarkada batzuk sektore konprometituenek baizik aldarrikatzen ez zuten higiezin merkatuaren gaineko esku-hartzea onar dezaten. Zerutik ezer ez denez erortzen, oroit dezagun iazko negu atarian Baionako karriketan 8.000 lagun bildu zirela etxebizitza eskubidea aldarrikatzeko. Geroztik, eragile ezberdinek egoitza turistikoak alokatzen dituzten plataformen jarduera salatu okupazio ekintza ikusgarriak egin dituzte. Testuinguru horretan, epaitegiek ezarritako oztopoen aurrean amore eman gabe, etxebizitza negozio gisara hartzen duten inbertsoreek errespetatu beharreko arau berritua

Euskarazko irakaskuntza, etxebizitzaren eskubidea eta elkarbizitza sustatzeko bidean herritarren tonuak gora egin du eta babes anitza duen agendaren bozeramaile jardun dute tokiko erakundeek

onartu zuen uztailaren 9an Iparraldeko erakundeak. Bere aldetik, bide egiten jarraitzeko, 2023ko apirilaren 1era-ko bigarren manifestazioa deitu du herri plataformak.

Finean, uztailaren 23an heldu zen agintariek herritarren borondateari zor dioten obedientzia agertu dezate- la bultzaturiko hirugarren ekimena. Jakes Esnal eta Ion eta Unai Paroten auzia desblokeatzeko aldarrikapena altxatu zuten lurraldearen erritmoa baldintzatuz 1.700 bake artisauk. Ekintza desobedienteak, horretan ere, hautetsien babesa jaso zuen. Irailaren 22an frantses justiziak hartuko duen hautua inoiz baino gehiago erabakigarria izanen da. Arazoak usteltzen uzteko estrategiaren aurrean, norabidea finkatu du herri antolatuak. •

ITSASOAN BEZALA LURREAN ERE

Libia eta Mediterraneoa Europara iristeko igaro beharreko bi amesgaizto dira batzuentzat

 **JENDARTEA** / Maddi Txintxurreta Agirregabiria

Mugarik Gabeko Medikuen (MSF) «Geo Barents» ontziak 3.138 pertsona erreskatatu zituen 2021 eta 2022 artean. Libiatik, berriz zapaldu nahi ez duten tokitik, atera ziren Mediterraneoko uretara gehienak; iritsi ziren Europara batzuk, beste milaka batzuk ez. Janice gazte kamerundarra iritsi zen, bidean hainbat biolentziak gurutzatu ostean.

Familia pobre bate-tik nator. Amak ez zuen lanik bizi ginen herrian, eta aita gaixo zegoen. Beraz, nire familiari laguntzeko, hiriburura joan nintzen izebarekin 13 urte nituela, eta berarentzako neskame gisa lan egin nuen. 15 urte nitue-nean, izebaren senarra sexu abusuak egiten saiatu zen. Aurrea hartzea lortu nuen, izebari esan nion gauean nire gelara etortzen zela eta nirekin sexu harremanak izaten saiatzen ze-

la. Izebak ez zidan sinesten. Kontrakoa, bere senarra limurtu nahian nembilela pentsatu zuen. Diru pixka bat eman zidan eta autobus geltokian utzi ninduen herrira itzultzeko. Izebak esan zidan nire lekua herrixkan zegoela, beste inon ez. Horrek Europara etortzeko konbentzitu ninduen». Gerora egin zituen adierazpe-nok Janicek, 23 urterekin, baina momentuan ez zion inori esan Kamerun utziko zuela Europan saiatzeko. Gorde zuen diru apur-rarekin Nigeriara iritsi behar

zuen eta kamioien azpitan egiten zuen lo. Dirua aise bukatu zitzaion, ordea. Nigeriara eramateko eskaini zioten bi gizon-ek. Ezin ziela ordaindu ohartarazi zien Janicek, ez zeukala dirurik, baina beraiek erantzun zioten ez zuela inporta, sexua-ren truke eramango zutela. «Ez neukan beste aukerarik». Iritsi zen Nigeriara eta beste bi gizon-ek bortxatu zuten han. Baina Libiara ailegatu behar zuen, eta segi; zortzi hilabetez jatetxe batean egin zuen lan di-rua aurrezteko.

Lortu zuen Libiara eramango zutenekin kontaktua egitea. Gela batean itxi zuten, beste jende batekin, haurrak barne. Astebe-te igaro zuen han, harik eta kotxe batek Libiarako bidera eraman zituen arte. Bidera, zeren, desertuan utzi zituzten. Sei egun eta gero beste kotxe batek eraman zuen Janice, azkenean, Libiara. Milaka dira, halako harri astu-nez betetako motxilarekin – ahur bete huts asko–, Europara-ko bidea lurretik eta gero uretatik –hautsak makilatuta lehenik, haizeteak orraztuta gero–, egiten dutenak urtero. Mugarik Gabeko Medikuen (MSF) «Geo Barents» ontziak artatzen ditu milaka horietako batzuk eta, ha-lere, baldintza prekarioetan itsa-soratzen direnen lagin bat bes-terik ez da. 2021eko ekainetik 2022ko



«Geo Barents» ontzikoak erreskate lanetan. 67 lagun zeuden Malta inguruan hondoratze arriskuan zegoen txalupan.
Anna PANTELIA | MSF



maiatzera bitartean, 11 aldiz nabigatu zuen «Geo Barents» ontziak, eta 47 erreskate operazio egin zituzten itsasoan. Ontzia itsasoratu zenetik ia urtebetera zabaldu ditu datuok MSFk. Aipatu denbora tartean, 3.138 pertsona erreskatatu zituen GKEaren ontziak, hamar gorpu berreskuratu, eta 6.536 kontsulta mediko egin zituen lehen mailako osasun laguntzarako, sexu eta ugalketa osasunaren arretarako eta buru osasuneko arazoak artatzeko. Erreskatatutako pertsona gehienak Libiatik ihesi ari ziren. Horietako askok adierazi zuten indarkeria, tortura edo tratatu txarrak jasan zituztela.

Mediterraneoan zeharkatu ostean bizirik atera ziren lagunak %34 haurrak ziren, eta horietatik %89 bakarrik ari ziren bidaiatzen. Gainera, 265 pertsonak indarkeria, tortura edo

tratu txarren bat jasan zutela jakinarazi zieten MSFko taldeei, eta 63 pertsonak, besteak beste, sexu indarkeria eta beste genero indarkeria mota batzuk jasan zituztela.

ATZERA BORTIZKERIARA

Denboran atzerago eginda, MSFk ematen dituen datuak eskandalagarriagoak dira: 2017tik 2021era bitartean, 8.500 lagun

Mediterraneoan zeharkatu ostean Mugarik Gabeko Medikuek erakundeak artatu zituen pertsonen artean %34 haurrak ziren, eta horietatik %89 bakarrik ari ziren bidaiatzen

2017tik 2021era bitartean, 8.500 lagun hil edo desagertu ziren gutxienez Mediterraneoan, eta 95.000 Libiara itzularazi zituzten, bortizki, segurtasun indarrek

Ezkerrean, 2021eko urriaren 23ko gaueko argazki bat. 95 pertsona zaramatzan gomazko ontziak. Eskuinean, goian, «Geo Barents» ontzian egindako argazkia. Behean, MSFko boluntarioak saihestu hezurrak apurtuta bidaiatzen ari zen gizon bat ari dira artatzen. F. TADDEI; A. PANTELLIA | AFP

hil edo desagertu ziren gutxienez, eta 95.000 Libiara itzularazi zituzten, bortizki, segurtasun indarrek. 2021ean, ordura arte erregistratutako nahitaezko itzulketa gehien izan ziren urtean, 32.425 pertsona atzeman eta itzularazi zituzten Libiara. «Han, pertsonak tratatu degradatzaileak jasan behar izaten dituzte, hala nola estortsioa, tortura eta, maizegi, heriotza», ohartarazi du erakundeak.

MSFk galdeketa bat egin zuten itsasoan erreskatatutako pertsona batzuei. Pairatu zituzten indarkerien %84 Libian izan ziren eta horien %68 erreskatatu aurreko urtean. Ekintza horietako asko kostazain libiarrek atzeman eta atxilotze zentroetan sartu ondoren gertatu ziren. Bizirik suertatu zirenek jakinarazi zuten erasotzaileak atxikitze

zentroetako guardiak zirela (%34), Libiako kostazain guardiak (%15), polizia militarra edo estatukoa ez dena (%11) eta kontrabandistak edo trafikantzaileak (%10).

Honela irakur daitezke datuok eta aipatzen diren indarkeria anizkoitzak 25 urteko nigeriar baten hitzetan, MSFk jasoak: «Polizia, kostako guardia, armada, ez dira inoiz guregatik kezkatzen. Denek jotzen ninduten, asko jotzen ninduten. Zorabiatu arte. Erortzen zaren arte. Zergatik laguntzen dio Europar Batasunak jende horri? Esan nuen, 'Jainkoa, mesedez, lagundu'. Nigeria seguru balitz, ez nengokeen lur honetan. Hirugarren aldirako prestatzen ari nintzela, pentsatu nuen, 'Jainkoa, nahiago dut itsasoan hil, Libiako atxiloteta zentroetara itzuli bai-

«Hirugarren aldirako prestatzen ari nintzela, pentsatu nuen, ‘Jainkoa, nahiago dut itsasoan hil, Libiako atxiloketa zentroetara itzuli baino’. Negar egin nuen. Orduan, hirugarren aldiz, beste ontzi batera igo nintzen»

«Libiara iritsi ginenean, hiru hilabetez egon ginen etxe batean. Noizean behin, gizonak etorri eta neskak eramaten zituzten. Orduan geratu nintzen haurdun. Une batean gizon bat etorri zen etxera eta erosi egin ninduen»

no’. Negar egin nuen. Orduan, hirugarrenez, beste ontzi batera igo nintzen».

ITSASOA ETA LURRA, HELEZIN

Bestalde, emakumeen eta haurren aurkako indarkeria maila handiak dokumentatu zituzten MSFko taldeek: biolentzia pairatu zuten %29 adingabeak ziren, 8 urte zituen txikienak, eta biktimen %18 emakumeak ziren.

«Libiara iritsi ginenean, hiru hilabetez egon ginen etxe batean. Noizean behin, gizonak etorri eta neskak era-

maten zituzten. Orduan geratu nintzen haurdun. Une batean gizon bat etorri zen etxera eta erosi egin ninduen. Hau maiz gertatzen da», kontatu dio Janice gazteak MSFri.

Kosta badu Libiak iparraldetik, baina itsasoa, batzuetan, helezin agertzen zaio. Zazpi hilabeteko haurdun zegoela igo zen Janice ontzi batera beste pertsona batzuekin, baina Poliziak atzetan zituen hondartzan. Egun horretan, beste ontzi batek itsasoratzea lortu zuen. «Handik egun batzuetara jakin

MSFk artatu zuen ontzi honetan 95 lagun ari ziren bidaiatzen.
Avra FIALAS | MSF

genuen lehen ontzia txikituta zegoela, eta denak ito ziren», gogoratu du kamerundarrak.

Eta itsasoa bezala, iritsi nahi den lurra bilakatzen da iritsezin. Iritsezin, aipatu bezala, 2017 eta 2021 artean Erdialdeko Mediterraneoan hil edo desagertu ziren 8.500 pertsonentzako, kasurako.

Berdin, helezin, Europako kosta, Italiakoa, ikusi –kasik ukitu– baina zapaldu ezin duten horientzat. Romeo hirugarrenez saiatu zen Libiatik Mediterraneo itsasoan barna ihes egin. Orduan, 2021eko otsailaren amaieran, Libiako Kostako Guardiak beste 110 lagunekin konpartitzen zuen ontzia geldiarazi zuen. Kamerundar honen arabera, Libiako Kostako Guardiak ontzia jo zuen, nahita, gizonak, emakumeak eta haurrak uretara eror zitezen.

«‘Geo Barents’-ek 2021eko ekainean erreskatatzeko operazioak hasi zituenetik, MSFk atzeman du itsasoan blokeoak normalizatzen ari direla. Bizirik atera direnak lehorreratzeko portu seguruko eskaerak sistematikoki ukatu edo baztertu dituzte Maltako agintariek; Italiako agintariei egindako eskaerak, berriz, gero eta gehiago atzeratu dira», salatu du erakundeak.

«Duintasuna eta eskubideak», besterik ez die eskatzen agintari europarrei pertsona migranteak erreskatatzen lanean ari den GKEak. Jatorria edozein dela ere, zehaztu behar izan du erakundeak. Zeren, kontinente zaharrak erakutsi du hartu eta arta ditzakeela migranteak eskubideak zainduaz bat, errefuxiatu ukrainarrekin egin bezala. Erakutsi du, MSFk nabarmendu bezala, «beharrezkoa ez ezik, posible dela migrazio politika hilgarri hori aldatzea».

Janice bigarren ez itsasoratzen saiatu zenerako, jaioa zen Mazin, bere haurra. Biek lortu zuten itsasoa gurutzatzea. Horrela azaldu zuen gazteak Europara iritsi berritan: «Bigarren aldiz itsasoa gurutzatzen saiatu nintzenean, erabaki nuen hobeto egongo nintzela itsasoa-ren hondoan Libian baino, baita Mazinekin ere. Mazin da ni bizirik egoteko arrazoia. Bera iritsi aurretik, ez nuen bizitzarako inongo asmorik».





Unai
GAZTELUMENDI

iRRITZIA: {





Saioa Aginako Lamarain
Psikoterapeuta

Eredu gara

Lehen haurtzaroan ditugun ereduak eta bizipenak erreferentzia dira harremanak eraikitzeko. Litekeena da maitasuna modu egokian lortzen ikasi ez duen haur bat helduaroan arlo horretan apur bat galduta sentitzea eta bide desegokietatik lortzen saiatzea. Era berean, litekeena da kontrolatzen, kudeatzen eta emozioei buruz hitz egiten dakiten gurasoekin hazten diren seme-alabak gaitasun horietan askoz ere trebeagoak izatea.

Bowlby aitzindarietako bat izan zen haurtzaroko atxikimendu figurei buruzko ikerketan (1980). Egile horrentzat, atxikimendua haurraren eta gurasoen arteko lotura emozionala zen, segurtasunerako eta garapen emozional zuzenerako bide gisa. Ondorioztatu zuen atxikimenduko lehen figurekiko interakzioek helduaroako premia afektiboen sistema antolatzen dutela. Beste era batera esanda, helduek, pertsonak haurtzaroan ikasi eta indartu diren elkarreraginak erakusten ditu. Hala ere, esperientzia goiztiarrak ez dira mendekotasun emozionala garatzeko behin betiko epaia, gizabanakoa helduaroan dituen esperientziak kontuan hartu beharrekoak baitira.

Gizakiak mendekoak gara. Hala ere, mendekotasun emozionala egoera psikologiko bat da, bizi duenarentzat ondoez iturri handia dena. Izaki sozialak garen aldetik, elkarren beharra dugu. Kontaktua, lankidetzeta eta hartu-emanak bilatzen ditugu. Hala ere, hori ez da beti horrela gertatzen: batzuetan norbaitekin bat egiten dugu, eta harremanak suntsitu egiten gaituela ulertu arren, harreman horri eusteko beharra sentitzen dugu.

Mendekotasun emozionala duten pertsonak gehiegi behar dute besteen afektua, arreta eta onespina. Bakardadearekiko eta abandonuarekiko bel-

dur irrazionala sentitzen dute, eta, ondorioz, mendekoagoak izango dira pertsonen arteko harremanetan. Gainera, eskusibotasun gogo handia dute. Beren kabuz asetzeko gai ez diren premia emozionalen eredu iraunkorra dute, eta, beraz, beste pertsona batzuekin lotura desegokiak ezarritik bete nahi dituzte. Horrela, oso sutsuak eta ezegonkorak diren loturak ezartzen dituzte, osasungarriagoak diren beste batzuen ordez.

Emozionalki besteen mende egotearen arazoa da, behar dugun arreta edo maitasun neurrigabea jasotzen ez bada, zalantza irrazionalak agertzen direla norberaren balioari eta besteek duten estimuari buruz, eta horrek eragina izango duela gure autoestimuan eta sentitzen ditugun emozioetan.

Zentzu horretan, mendekotasun emozionala saihesteko hezteak, osasungarria izateaz gain, posiblea da. Haurrak heldu independente bihurtu nahi izatea ez da batere errealista, sustatzen ez bada. Haur bat jaiotzen denean, mendekotasuna erabatekoa da.

Hala ere, gero eta autonomia handiagoa lortzen bada, hezkuntzaren arabera izango da autonomia hori.

Independentzia emozionalak askatasun, bake eta benetakotasun sentazio handia ematen du. Lortzen denean, besteekin harreman osasuntsuak izateko, norberaren emozioak behar bezala kudeatzen ikasteko eta bizi ditugun gatazka, tristura edo ondoez uneen maiztasuna murrizteko prest gaude.

Beraz, hezitzaileak haurrentzat eredu zuzena direla ulertzen badugu, argi dago eredu kontzienteak izatearen garrantzia. Emozionalki mendekoak ez diren haurrak hezteak bilatzen badugu, ona litzateke elkar ezagutzen, maite eta baloratzen duten haurrak hezteak. Agian une egokia da gogoratzeko gai garela, ez garela ezeren erdia, izaki osoak garelako. Orduan, hortik, beharrraren eta maitasunaren arteko ezberdintasuna irakatsiko dugu. •

saioaaginako@gmail.com



Helduaroan, pertsonak haurtzaroan ikasi dituen elkarreraginak erakusten ditu.

Gorka RUBIO | FOKU

{ asteari zeharka begira } Iñaki Altuna

«Arazo nazionala zen, eta da, bizkarrezurra»

Aurreko batean, orrialde hauetan bertan, nazio auzia lausotzeak edo liskar txikitant galduta bi estatuak ekuaziotik kanpo uzteak emantzipazio prozesuari –edo zein dela ere horren ezaugarritzea– eragin diezaioketen kalteaz aipamena egin genuen, hor behar zela arreta jarri nabarmentzeko.

Zapalkuntza modu gordinean eta iraunkorrean eza-gutu du Euskal Herriak, eta herri gisa subjektu izateko, eskubide guztiak eskuratzeko eta etorkizuna erabaki ahal izateko gogoak nolakotu du herri honen gaur egungo errealitatea. Hori kontuan hartu gabe, ez ginateke gai izango errealitate hori behar beste aztertzeko, ezta gerora begirako eztabaidak eta korapiloak behar bezala askatzeko ere.

Nazio auzia baretzeko saioak eta arriskuak ugariak izan dira, kasik ziklikoak, eta euskal herritarren artean ez dira baitezpada fede txarrez egindako operazio gisa ulertu. Esate baterako, Euskal Herrian Podemosek hauteskundeetan inon baino gehiago izan zuen arrakasta esanguratsua izan zen. Gehiengo handi batek aldaketa politiko eta soziala bideratzeko aukera zela ulertu zuen, nahiz eta euskal eremua ur zitekeen Espainiako Estatuaren balizko demokratizazio prozesu baten baitan.

Nazio askapen prozesuan murgildu direnak batzuetan taktikoki estatu mailako jokalekuan aritu behar izan badira ere, nahikoa gertakari izan dira hamarkada hauetan denetan euskal eremua aldaketa prozesuei bide emateko eremu egokiena dela egiaztatzeko; hain zuzen ere, jasandako zapalkuntza nazionalari aurre egiteko borondateak eremu hori ongarritu duelako. Nola ulertu bestela hainbat borrokak eta dinamikak gurean izan duten indar berezia?

Gainera, herri baten askatasun egarria apaltzeko edo bigarren mailan uzteko erreparorik ez duena nekez

izango da egiazko prozesu askatzaile bat egituratzeko gai. Etxekaltea ere egin daiteke ideia handien izenean.

Esan bezala, halakoak ez dira gutxitan gertatu, eta bada oraindik halakoak gogorarazteko lekukotasun garrantzitsurik. Esate baterako, 2018ko apirilean, ETAK desegitea iragarri baino egun batzuk lehenago, Jose Manuel Pagoaga Peixotok “Berria” egunkarian egindako elkarrizketan gogora ekarri zituen erakunde horren IV. eta V. biltzarren bueltan arazo nazionalari garrantzia kentzeko ahaleginak. Gerora, ETA(m) izango zenaren lehen zuzendaritza osatu zuen Peixotok Txominekin eta Argalarekin batera. Harekin hitz egiteko aukera duenak haren ahotik entzungo du nola Argalak esaten zuen bi arrasatear horiekin loratu zela osoki bere aber-tzaletasuna, teoria eta praktika iraultzailea blaituko

Jasandako zapalkuntza nazionalari aurre egiteko borondateak euskal eremua ongarritu du. Nola ulertu bestela hainbat borrokak gurean izan duten indar berezia?

zuen abertzaletasuna. Aipatu elkarrizketan, Txabi Etxebarrietaren hitzak ere gogora ekarri zituen Peixotok: «Ezkerrekoei esan zien klase borrokarako Euskal Herria zela esparrua, eremu autonomoa zela Euskal Herria, eta lehentasuna arazo nazionalak zuela». Peixotok ez zuen soilik iraganari begira hitz egin, eta gaurkotasuna galdu ez duen esaldi bat ere bota zuen: «Arazo nazionala zen, eta da, bizkarrezurra».

Halako lekukotasunek gaitz handiena zein izan daitekeen gogorarazi beharko liekete euskal iraultzaileei. ETArek historian «likidazionismo» hitza maiz –maizegi– borroka armatua auzitan jarri izanarekin lotu da, baina, egiari zor, likidazionismoaren maila gorena euskal nazio proiektua kolokan jartzea dateke. •



DRAGOI TXIKI BAT EGONGELAKO HORMAN

Iñaki Sanz-Azkue

Itzal bat sumatu du mugitzen egongelako horman. Paretan gora egin du ziztu bizian; eta ezkutatu da. Ezkutatu, gela ertzeko zirrikituaren iluntasunean. Ez du sekula halakorik ikusi. «Baina... Zer zen hori?».

Duela hamarkada batzuk azaldu ziren aurreneko dragoitxoak Euskal Herrian. Nafarroako Erriberan ikusi zituzten lehenbizikoak. Ordutik, pixkanaka, gorantz egin dute: kostaldera. Egun, herri askotan topa daitezke jada. Etxeko egongeletako horman gora eta behera dabilta, edo teilatuetan eta paret zaharretan aurki daitezke, gordeta. Isiltasunean, gauez mugitzen dira. Oharkabea. Ia konturatu gabe iritsi dira gurera: dragoitxoa gelditzeko etorri da.

Erriberan ari ginen ikerketa lanetan, Nafarroako anfibioen eta narrastien atlasa egiten», aipatu du Alberto Gosak. «80ko hamarkada zen, eta ordura arte Ebro inguruan eta hortik behera baino ez ziren ezagutzen dragoitxo arruntaren populazioak». Ikertzaileak iritsi zirenean, ordea, tren geltoki baten inguruko horman, sugandila itxurako, geko antzeko narrastiak ikusi zituzten. Ordura arte, inguru haietan ikusi gabeko espeziea zen.

Dragoitxo arruntaren (*Tarentola mauritanica*) behetik goranzko bidaia hasia zen jada. Erriberatik Euskal Herriko kostalderaino egin duen bidearen testigu izan da ordutik Alberto Gosa herpetologoa. Hamarkada gutxian ikusi du narrasti txiki honen banaketak izan duen bilakaera; zalantzarik gabe, irakurketa sakonago bat merezi duena. Dragoitxoa Euskal Herriko herri askotara iritsi izana ez baita kasualitate hutsa.

DRAGOITXOAREN ARRAKASTA

Alberto Gosak garbi du: «Dragoitxoak klima aldaketaren aurrean arrakasta izateko baldintza guztiak betetzen ditu. Esan daiteke egoera probestu izanaren





Irudian, dragoitxo arrunta («*Tarentola mauritanica*»). Adituen esanetan, klima aldaketaren aurrean arrakasta izateko baldintza guztiak betetzen ditu. Ander IZAGIRRE

eredu garbia dela». Izan ere, dragoitxo arrunta klima mediterraneoari loturiko espeziea da. Temperatura altuko gauak ditu gustuko, gautarra baita, batez ere. Ez da, ordea, negu hotzen zale. Hala, pixkanaka, tenperaturak epeltzen joan diren eremuetan, hasi dira dragoitxoak azaltzen. Haientzat bizi baldintza txarrak zituzten tokiak, egun, bizitzeko egokiak baitira.

Hori gutxi ez eta, gizakiak bizitokia ere prestatu dio. Hiriguneak eta herriak handitzen joan diren heinean, hasi dira dragoitxoaren populazioak ere zabaltzen. Eraikitako etxe berriak, bai eta aurretik zeuden zaharrak ere, leku aproposa baitira narrasti txiki honentzat. Mundu naturaleko arroka handiak utzi, eta auzoetako hormetan gora eta behera

dabilta. Bero edo hotz handien etorrerarekin etxe barruak bilatzen dituzte babeserako eta, elikatzeko garaian, kaleko hormetan dagoen argiteriara gerturatzeko dira intsektuak ehizatza.

Kuriosoa da. Hainbat espezieen gainbehera bultzatzen ari diren klima aldaketa eta eremu urbanoaren zabalpena, espezie honen mesederako ari da izaten. Espezie oportunistak da dragoitxoa. Testuinguru honetan, aukera berriak suertatu zaizkio, eta bere banaketa eremua zabaltzen ari da; gutxika-gutxika, leku berriak konkistatzen. 80ko hamarkadan topatu zuten lehen aldiz Nafarroako Erriberan, eta hamarkada berean, jada, Iruñean ere ikusi zituen Gosak. Egun, populazio egonkorrak daude Nafarroako hiribu-



ruan. Dragoitxo arrunta espezie bat gehiago da Iruñeko narrastien artean.

Itzal guztiak, ordea, ez dira etxeetako hormen artean mugitzen. Dragoitxoak ezusteko polit bat ere bazuen gordea oraindik Aranzadi Zientzia Elkarteko Herpetologia Saileko kideentzat.

Dena erantzunda dagoela uste due-nean, sortzen baitira galdera berriak adituaren buruan, eta galdera berriekin batera, horiek argitzeko nahia. Bardeako ilargiak gaueko animalien bizitza argitzen duen moduan...

BARDEAN, ILARGIPEAN

2008ko maiatza. Bero egiten zuen Bardean. Harri konglomeratuz osaturiko gune batera iritsi ginen ustekabeen. Arroka handiak, lur soila eta gune irekia,

2008an Aranzadiko herpetologoek Bardeetan topatu zuten dragoitxoa, espero ez zuten tokian. Irudiotan ikus daiteke espezie horrek hankatxoetan duen berezitasuna, eskuin-aldeko irudian detaile gehiagoz.

Alberto GOSA

Kuriosoa da. Hainbat espezieren gainbehera bultzatzen ari diren klima aldaketa eta eremu urbanoaren zabalpena, espezie honen mesederako ari da izaten. Espezie oportunistak da dragoitxoa

Banaketa eremua zabaltzen ari da; gutxika-gutxika, leku berriak konkistatzen. 80ko hamarkadan topatu zuten lehen aldiz Nafarroako Erriberan, eta hamarkada berean, jada Iruñean. Egun, populazio egonkorrak daude bertan

harri txikiagoz inguraturiko parajeen. Banaka-banaka hasi ginen azken horiek altxatzen, narrastiren bat aurkitzeko esperantza ez baita sekula galtzen. Gutxien espero genuena, ordea, leku horretan, espezie hori topatzea zen...

Harri konglomeratu bat altxatu, eta harriari itsatsita topatu genuen: dragoitxo bat. Non eta eraikuntzarik gabeko eremu ia mortuan. Bardeako desertuan. Argiteriarik ez zen gunean. Gizakiak sorturiko eremu artifizialetik kanpo. Eremu naturalean, alajaina!

2008 eta 2011 artean antzeko behaketa gehiago egin ziren. Dragoitxoak hiri-guneetatik kanpo... Iberiar penintsulan, bere jatorrizko eremuan ikusten diren moduan. Galderak, alabaina, ez du erantzunik oraindik. Dragoitxoa Erriberara iritsi zenean, herrietatik kanpo ere zabaldu zen, ala... Erriberakoak iritsi aurretik Bardean zegoen populazio natural batekin egin genuen topo?

Aurretik egindako elkarrizketek jasotzen dutenaren arabera, bertako biz-



tanleek ezagutzen zuten espeziea: ikusia zuten lehendik ere Bardeako eremu naturaletan. Topatu genuen arte, alabaina, ez zen sekula aurkitu. Inguruko herrietan dragoitxoaren dentsitatea igo izanak ere bultza zezakeen espeziea herrietatik kanpo ateratzera. Beraz, galderak airean jarraitzen du Erriberako basamortu txikian; kilometro batzuk gorago, itsasoak eta lurrak bat egiten duten eremuan, beste dragoitxo batzuek ura besterik ikusten ez duten birtartean.

HORMA BAT ITSASOARI BEGIRA

2010a zen. Getxoko itsasadarrean, Bizkaian, horma zaharren arteko zirrikitan ikusi zuen Aitor Lazak. Ordurako jada dragoitxo arrunt helduak ikusiak genituen Euskal Herriko kostaldean. Irunen eta Hondarribian, esaterako. Bai eta Gasteizen ere.

XXI. mendearen hasieran kostaldeko hainbat lekutan azaldu zen dragoitxoa. Getxokoak, baina, bazuen berezitasun bat beste guzuekin alderatuz: aurkiturikoak dragoitxo gaztetxoak ziren. Kostaldean behaturiko lehenbiziko ale gazteak, alegia. Aurretik ikusitako guztiak helduak baitziren. Horietako askok negua igarotzeko zailtasunak izango zituztela pentsatzen zen, edo, nahiz eta igaro, haien kumeek ez zutela urtarorik gogorrena pasatuko. Getxoko kasuan, ordea, jada Nafarroako hainbat lekutan ikusten zen bezala, kumeak ere aurkitu ziren 2010. urtean. Hala, galdera bat aireratu zen herpetologoaren artean: hasiko al ziren dragoitxoak kostaldean umatzen?

Urte batzuk beranduago, 2020ko lan-pasatuta, jada ziurta dezakegu itsasertzeko herri askotan populazio egonkorra daudela. Hondarribiko alde zaharrean, esaterako, hainbat heldu eta kume ikusi dira bertako harresian, bai eta harresi barneko etxeetan ere. Do-



nostiako Urgull mendian, oster, bertako pareta zaharretan dago dragoitxoa, portu zaharreko itsasontzien sartu-irtenak ikusteko moduan. Bardeako basamortutik, Donostiako itsasoraino iritsi da geko txiki honen bidaia urte

XXI. mendearen hasieran kostaldeko hainbat tokitan agertu zen dragoitxoa. Dagoeneko esan daiteke itsasertzeko herri askotan populazio egonkorra daudela.

Itziaki SANZ-AZKUE


Bardeako basamortutik, Donostiako itsasoraino iritsi da geko txiki honen bidaia urte gutxian. «Horren denbora laburrean, kilometro asko ez al da?». Horren bidaia luzea egiteko dragoitxoak beste sekretu bat du gordea

«80ko hamarkadan Erriberan ikusitakoak tren geltokiak zituzten herrietan topatu genituen», aipatu du Alberto Gosak. Ez da kasualitatea. Dragoitxoak trenarekin batera etorri zirela sarri aipatu baita adituen artean

gutxian. «Horren denbora laburrean, kilometro asko ez al da?», pentsatuko duzu agian, irakurle. Ez duzu arrazoirik falta. Horren bidaia luzea egiteko, dragoitxoak beste sekretu bat ere baduelako gordea. Erantzuna artikulu honen hastapen hitzen artean aireratu da, erdi ezkutuan...

TIKETIK GABEKO BIDAIAIRIAK TRENEAN

«80ko hamarkadan Erriberan ikusitakoak tren geltokiak zituzten herrietan topatu genituen», aipatu du Alberto Gosak. Ez da kasualitatea. Dragoitxoak trenarekin batera etorri zirela sarri aipatu baita adituen artean. Irun eta Hondarribia inguruko lehen behaketak ere hala egin ziren, estazioetatik gertu.



Hori gutxi ez eta, jakina da, Iberiar penintsulan, behetik gorako bidaia egin dutela hainbat materialen artean, kamioietan, edo batzuetan, itsasontzien barrualdean, portura iritsi arte. Azkar bidaiatzeko aukera ere eman dio, beraz, gizakiak dragoitxoari, eta honek ez du aukera galdu. Eremu berriak kolonizatu ditu. Egun baldintza egokiak dituzten eremu berriak.

Alberto Gosaren ustez, interesgarria litzateke dragoitxoaren bilakaera etorkizunean ikertzea. Izan ere, klima aldaketaren adierazle ona izan baitaiteke espeziea. «Europar gora egingo du, ziur asko. Bertan beste espezie batzuk topatuko ditu. Nafarroan eta Urgullen, esaterako, liolepis sugandila (*Podarcis liolepis*) topatu duen moduan, horma-sugandilarekin (*Podarcis muralis*) ere topo egin dezake. Interesgarria izango litzateke horien arteko elkarrekintzak aztertzea. Klima aldaketaren aurrean gertatuko diren eszenatoki berriak ikertzea».

Sortuko ditu, beraz, eztabaidarako gai berriak dragoitxoak, aurretik egin izan duen moduan. Galdetu, bestela, Alberto Gosari. Berak kontatuko baitizu, 1998an Fuerteventuran egin zen herpetologiako kongresuan gertaturikoa. Urteetan zehar espezie honi buruz izandako galderak argitzen hasi zirenekoa, alegia...

DRAGOITXOA ULERTZEKO, FISIKA IKASI BEHAR...

Uwe Hiller-ek hartu zuen hitza Fuerteventurako kongresuan. Urtetan jakinmina sortu zuen gaiari buruzko hitzaldia eman behar zuen. Dragoitxoak horman gora eta behera ibiltzeko duen gaitasunak txundituak zituen aditu guztiak. Gainazal leunetan ere lasai asko ibiltzen da, erori gabe, edo buruz behera etxeko sabaian. Itsatsi egiten dira, baita kristalean ere, eta horrek aukera ematen die, esaterako, trenean edo era askotako ma-

terialen artean hobeto bidaiatzeko. Ondo helduta joaten baita.

Asko izan ziren kongresu hartara arte botatako hipotesiak. Denak okerrak, ordea: dragoitxoek ez dute ez guruin ezta bentosa itsaskorrik euren hankatxoetan. Uwe Hillerrek hipotesi berri bat plazaratu zuen Fuerteventurako kongresuan. «Han nengoen ni Hillerrek hitzaldia eman zuenean», dio Gosak.

Hillerrek dragoitxoaren gaitasuna behatz arteko iletxoaren ultramorfologiagatik zela aipatzen zuen. Van der Waalsen indarrei esker gertatzen zela hori, proposatu zuen. Kontrako karga elektrikoko atomoen arteko irismen laburreko erakarpin indarrak dira Van der Waals-enak. Gekoaren gaitasuna ulertzea oso interesgarria zen. Izan ere, horma zailak eta handiak arriskurik gabe nola igo jakitea baliagarria izan daitekeelako gizakiak berak gailu berriak sortzeko.

Hillerrek, botatako ideia ausart hura ondo azaltzeko, 30 urte igaro behar izan zituen ikerketan. Azkenean, Kellar Autumn-en taldeak eman zuen erantzun zuzena 2000. urtean, Hillerrek egindako aurrerapenei esker. Horien ustez, dragoitxoaren oinak ez dira leunak. *Setae* izeneko ile finez osaturik daude. Esku bakoitzean milioi erdi izango dituztela uste da. Eta egitura horien ertzean, *spatulae* izeneko nanoegitura duten mila ile submikroskopiko daude. Horiek sortzen duten egitura zimurra da, itxuraz, azalera-ko energia ustiatzen duena. *Setae* egituren inklinazio graduak ere eragina du animalia-aren mugimenduan eta itsasteko gaitasunean. Hala, horietako egitura bakoitzak egiten duen atxikitze indarra txikia bada ere, horien baturak sekulako gaitasuna ematen dio narrastiari.

Ikertzaileek ez dute aukera galdu, eta gekoek duten gaitasuna produktu berriak sortzeko erabili nahi dute, bai eta medikuntzan ere aplikatu ahal izateko.

Naturaren ezagutzan dirua inbertitzea dirua galtzea dela entzun behar izaten du sarri ikertzaileak. Dragoitxoa horman gora mugitzen ikusi zuenean Uwe Hillerri sortuko zitzaizkion galderek eragin dute ezagutza hori azalratzea. Eta orain dugun jakinduria horrek lagunduko du gizakiaren ongizatean aurrera egiten.

Etorkizunean suerta daitezkeen galderrei erantzuna eman nahi badiugu, ezin bestekoa da kuriositatea, naturan agertzen diren prozesuekiko interesa eta zientzia hezkuntzaren garrantzia gizartean txertatzea. Hala ulertuko dugu, esaterako, egongelako horman gora eta behera dabilen itzal azkar horretan gure etorkizuna argitu dezaketen galdera asko kabitzen direla. Nork pentsatuko zuen bada, nanoegituretatik hasi eta klima aldaketarainoko kontuak sartuko ziren dragoi txiki baten barruan...

Adituek uste dute etorkizunean iparralderantz egingo duela dragoitxo arruntak. Irudian, Bardean topatutakoa.
Alberto GOSA



EUSKAL HERRIKO ERRETRATUAREN ARTEA IKUSGAI DONIBANE LOHIZUNEN

Idoia Eraso

«Siluetak, buruak eta aurpegiak: erretratuaren artea Euskal Herrian» erakusketak XIX. mendeko artistak, garaikideak eta berri-berrienak elkartzen ditu Donibane Lohizuneko Dukontenia eta Rotonda geletan. Agorrilaren 21era arte ikusgai izanen diren margoak, marrazkiak, argazkiak eta eskulturak bilduma pribatu eta publikoetatik heldu dira.

Sasoi desberdinetako erretratuaren adibideak biltzen dituen erakusketa anitza da garaiari eta formari begira. Aniztasun hori baldintza hain berezietan denen eskura egotearen arrazoia erakusketaren komisarioroi zor zaie, Ines eta Michel de Jaureguiberryri. «Ez gara adituak, baina pasionatuak bai, jada liburuak idatzi ditugu horri buruz, eta bildumagileak gara. Aspaldi egin nahi genuen erakusketa bat Euskal Herriko erretratuaren arteari buruz, Iparralde eta Hegoaldeko artistak elkartuz», baieztatu du bigarrenak.

Erakustaldi honetan aldi baterako elkartzen diren obren parte handi bat bestela ikusteko zaila edo ezinezkoa da kasu anitzetan. Bilduma osatzen duten 90 lanen parte handi bat hamabost bildumagilek komisariorengan «konfiantza» dutelako ikusgai dira, eta beste batzuk erakunde publikoetatik heldu dira. Ramiro Arruerenak Donibane Lohizuneko herriko etxeko paretak dekoratzen egoten dira, publikoari irekiak ez diren geletan, eta Baionako Euskal Museoa bi obra utzi ditu.

Ia bi urte dira hitzordu berezi hau prestatzen hasi zirela, Michel de Jaureguiberryk zerrenda «amestu» gisara definitzen duen hau lortu ahal izateko: «Aukera oso pertsonala eta subjektiboa da, nahi genuen guk garrantzitsutzat hartzen ditugun obrak sartu. Garaikideen artean Zumeta, Sistiaga edo Oteiza bertan daude, esaterako, zerbaiten adierazle direlako, artista handiak direla uste dugulako, eta denen artean istorio bat kontatu nahi izan dugulako. Leon Bonnat, Pablo Tillac... artista klasiko ezagunen artean. Eta Donibane Lohizuneko Louis Triol etorkizun handiko artista gaztea sartu dugu, esaterako».

Argiki adierazi dute obren nahasketa oso subjektiboa izan dela, XIX. mendearen bukaeratik, XX. mende osoan zehar, eta gaur egun arte, erretratuaren arteari buruzko osotasuna aurkeztu nahi izan dute

ikuspuntu propioetik. Bide horretan, garaia, estiloa eta teknika elkartzea derigorrezkoa iruditu zaie.

Nahasketa aurkezpenean ere aipatu dute; horrela, kronologikoki antolatu beharrean adierazpide artistikoari begiratu diote: «Obrek elkarri hitz egiten diote, erakusketaren ideia da ibilbidean zehar teknikaren, artisten eta garairen aniztasuna agertzea, eta nahastea gai beraren inguruan». Euskal arteari dagokionez, erakusketaren bi-

tartez erretratuaren garrantzia azpimarratu nahi dute egitasmo hau prestatzen hamar urte zeramaten senar-emazteek.

Bisitariari «sentiaraztea» bilatzen dute antolatzaileek, eta helburu horrekin egin dute hautua eta antolaketa. Dukontenia da espazio handiena, bi estaietan banatuta. Bertara sartzean, Ramiro Arrueren autorretratu batek eta Pantxo Egañak Jose Antonio Sistiagari egindako argazki batek egiten dio bisi-



SOLIZANO Edoard
Naurice Ravel
Cuivre



tariari harrera. Ondoren, Zigorren es-
kultura bat eta Leon Bonnaten obra bat
atzeman daitezke, «konfrontatuta».
Horrekin potretak era ezberdinetan
adierazi daitezkeela erakutsi nahi izan
dute.

Autorretratuei eskainitako horma
oso bat ere bada, baita Gaur taldeari
omenaldia egiten dion beste bat ere,
non Oteiza, Sistiaga, Zumeta eta Txilli-
da agertzen diren adierazpide ezberdi-
nen bitartez.

Goiko partean, aldiz, nahasketa da
protagonista nagusia, bertan margo
klasikoen eta modernoek elkarketa
agertzen da, nola garatu diren agerian
utzi nahi duena. Artisten ibilbide osoa
izan da, justuki, hautaketa subjektibo
horretan kontserbatzaileen irizpide na-
gusia, artisten errekonozimenduarekin
batera. «Kalitatezko ibilbidea izan du-
ten artistak soilik eman ditugu», adie-
razi du senarrak.

Horien artean aurki ditzakegu: Patxi
Laskarai, Aitor de Mendizabal, Zoe
Bray, Helene Elissague *Elizaga*, Ainize
Txopitea, Marie Garay, Gonzalo Etxe-
barria, Mauricio Kaperotxipi, François
M. Roganeau, Koldobika Jauregi, Ama-
ble Arias, Jose Ramon Anda, Gustave
Colin, Sandrine Debarbieux, Alberto
Arrue, Michel Hacala, Julian de Tellae-
che...

Bi espaziotan banatua izatea baliatu
dute komisarioek erakusketa bera ere
zatitzeko, Rotonda gela kostaldearen
ondoan dago, eta horri loturik «Itsa-

Garai eta diziiplina desberdinetako
artisten lanak biltzen ditu
Donibane Lohizuneko erakusketak.
Abuztuaren 21a arte izango da
ikusteko aukera.
Patxi BELTZAIZ

soa, marinela eta kaskarotak» izena
jarri diotela jakinarazi du Michel de
Jaureguiberryk: «Bertan ere, nahasketa
atzematen da, arte garaikidea eta klasi-
koa elkarturik. Itsasotik hurbil dagoen
gunea da, eta aski txikia denez gai ba-
kar bat izatea nahi genuen, borobilduta
gelditzeko. Euskal artean itsasoaren
gaia oso presente dagoela kontuan har-
tu behar da».

EKIMEN ARRAKASTATSUA

Dukonteniako gunean obrek bisitariari
beren sekretuak agerrarazi baino le-
hen, harrera egiten egoten da beti Syl-

vie Ravold. Bertara jende anitz hurbil-
tzen ari dela baieztatu du, baita atera-
tzean jendea oso pozik egoten dela ere,
bildumaren kalitatea dela-eta: «Kon-
trastea gustatzen zaie, eszenografia on-
gi pentsatua dagoela erraten didate».
Gustuen aniztasunak erakusketaren
aberastasunarekin bat egiten duela ere
azaldu du, Pablo Tillac anitz gustatzen
zaia, Arrueren «Suzanneren potret-
ta»... zerrendatzen hasita erakusketa-
ko artisten itzulia egiten du Ravoldek.
Erakusketan obraren bat daukaten ar-
tista bizietako gehienak estreinaldian
izan ziren eta Jaureguiberryren iritziz,
«guztiek maitatu dute, ia denak izan zi-
ren bertan, eta guretzat oso garrantzi-
tsua izan zen, beraien atxikimendua
erakutsi ziotelako horrela».

Hautaketa egitean zazpi lurraldeak
kontuan hartu dituztela nabarmendu
dute antolatzaileek: «Oso garrantzitsua
da guretzat Hegoaldeko artistak ezagu-
nak izan daitezen Iparraldean, baita al-
derantziz ere. Anitzetan konturatzen
gara gaur egun ez dela horrela. Guk
Euskal Herriari buruz pentsatzen du-
gularik osotasunean izaten da».

Hitzorduari loturik, eta gaiari helduz,
hitzaldi bat eskainiko dute erakusketan
hautatuak izan diren Louis Triol argaz-
kilariak eta Sandrine Debarbieux mar-
golariak abuztuaren 3an 17.30ean Ro-
tonda gelan. Obrak ikusteko aukera
asteazkenetik igandera dago, 15.00eta-
tik 19.30era, eta larunbatetan goizean
ere bai, 10.00etatik 12.30era.





Ana Elozegi Serna

Harremanak Hezkuntza Elkarteko kidea

Hartu eta emanak, harremanak

Bizitza aurrera doan heinean harremanak aldatzen joaten dira, aldi ebolutibo bakoitzean pertsona ezberdinak suertatzen dira gure alboan. Batzuek diote ikasteko izaten dela; pertsona horiek gure alboan agertzen direla zerbait ikasi behar dugulako bizitzarako eskolan.

Beste lagun batzuk agertu eta desagertu egiten dira, esaterako, eskola garaiko lagun minak. Beraiekin pentsa zenbat denbora elkarbanatu genuen, zenbat jolas, barre, zigor, haserre. Pertsona mordoa datorkit burura! Eskolara joateko gogoz egoten nintzen haiekin kontuak esateko, barre egiteko... ederki pasatzen genuen eta.

Haiek bolada luzean desagertuta izan ditudan arren, gero helduaroan, bizitzako beste aldi batean, agertu dira berriz, eta denbora igaro ez balitz bezala sentitzen zara harremanean, hartu-emanen. Bizitzako erritmo bortitzak ez baitigu uzten –edo guk ez diogu arretarik jartzen– on egiten ziguten harreman horiei denbora pixka bat eskaintzen.

Eta zeresanik ez, unibertsitateko lagunak, elkarrekin ikasten bost urtez pisu berean elkarbizitzan egondako lagunak. Hor bai sentitu nuela hartu-eman; ederki pasatzen genuen, batzuetan eman eta besteetan hartu. Bai, laguntza ona ematen zuten pertsonak. Horiek badakit bizitza gutzirako bidelagunak izango direla. Pertsona horiekikoa ere, nahiz eta denbora luzez beraiekin ez egon, galtzen ez den harremana izaten da.

Bizitzarako aldi ezberdinetan agertu diren bidelagunak, lan inguruko hartu-emanak, gure tribu txikia. Hauek egunero daude presente, batzuk gehiago eta besteak gutxiago. Kuriosoa, bizitzako alor ezberdinetan dauzkagun har-

tu-emanak! Lanaren bueltan, urte luzez nire ondoan dauden pertsona zoragarriak ezagutu ditut, lanera joateari beste zentzu bat ematen diotenak.

Beste batzuk, aldiz, bizitzako ia aldi guztietan presente edukitzen ditugu, batzuetan gertuago eta besteetan harantzago; eta bakan batzuk guren alboan beti, erortzera joaterakoan helduleku egiten diguten horiek.

Bidaia hauetan guztietan norberak duen hartzeko eta emateko gaitasunaren arabera egiten omen da lotura, atxikimendua, laguna. Zenbat garen gai emateko eta hartzeko, zenbat garen gai geure buruaz ahaztu eta bestearen beharraz pentsatzeko. Zenbat garen gai hartu-emanak denboran mantentzeko, edo ez mantentzeko min eman badigute, limiteak jartzeko, distantzia hartzeko...

Ezin ahaztu txikitako kuadrilla, talde batean hasi eta gero beste batekin elkartu eta gaur egun mantentzen diren hala moduzko harremanak. Zenbat lan ematen duten kuadrillek: nerabezaroan, umetan, eta gero ere bai, zahartzaroan.

Oporretako eta udarako lagunak ere, bizipen mordoa elkarbanatuz, bizi-biziak izaten ziren horiek.

Eta bidean galdu diren lagunak, lagun minak. Batzuetan hartu-emanen korapiloak suertatu direlako, beste batzuetan minagatik, beste batzuetan distantziagatik edo beraien bizitzako aldia eten delako.

Denengandik ikasi dugu, denengandik jarraitzen dugu jasotzen eta ematen gehien balio duena: maitasuna.

Udara garai ona da lagun berriak egiteko kanpinean, mendian, ikastaro eta elkartrukeko lekuetan. Zein garrantzitsua den irekita egotea hartu-emanen... Harremanean.

Udara on! •



Zein garrantzitsua den irekita egotea hartu-emanen. Juanan RUIZ | FOKU

{ koaderno } Miren Jone Lizarzaburu

Osasungintza lodifoboan ezin kabitu!

Gernikan izango dira irailaren 9tik 11ra Euskal Herriko Lehen Jardunaldi Lodiak: “Ezin kabitu! Jatunaldiak”. Loditasuna afera politiko gisa lantzeko antolatu dira tailerrak, hitzaldiak, kontzertuak eta bertso saioak. Antolatzaileen hitzetan, “Jatunaldiak” hiru eguneko irla bat izango dira Euskal Herri lodifoboan.

Lodiok irla baten beharra dugu, gorputz lodia gure gizartean subjektu itsusi, gaixo eta immoral gisa ulertzen delako, eta ondorioz, lodiok ere gure burua horrela ikusten dugulako. Hondartzako begirada lodifoboak, gure gorputza ispiluan ikustean sentitzen dugun nazkak, parranda bukaerako ligoteoaren dinamikek edo edozein herri bazkaritako kamiseten neurriak argi uzten digute ez garela kabitzen normalitateak diseinatuta daukan mundu konfigurazioan. Baina lodi errebeldeek aho batez erantzuteko aukera dugu Gernikan; kolektiboki elkar indartuko dugu argi adierazteko: ez dugu kabitu nahi!

Erresistentzia lodiaren aurrean altxatzen diren ahots kontserbadoreek maiteen duten argudioa osasunarena da; normalean formulazioa honelako zerbait izan ohi da: «Ni ez nabil estetika edo politika kontuez, osasunaz ari natzaizu; lodi egotea ez da osasuntsua». Osasunaren bandera irmo defendatzen duten mezulariak “Kinoa, zelulitisaren aurkako aliatu onena” edo “Galdu 15 kg 15 minututan” gisako tratatu medikueta oinarritzen dira normalean, eta osasuna diotenean bolumenaz dabilta ez baitute osasun mentalari, ginekologikoari edo odontologikoari buruz ezer esateko. «Osasuna bai, baina politika ez» dioen profila haurren obesitate tasekin eskandalizatzen da, baina ez dio batere axola Osakidetzaaren pribatizazioak. Profil horren arrakasta zientziak duen objektibazioa aprobetxatzea da lodifobia zabaltzeko.

Medikuntza zientzia garbi gisa ulertzen dutenek uste dute gaixotasuna definitu daitekeela koordinatu biologiko edo naturalen bitartez, balioen inguruko epaiak alde batera utzita. Baina homosexualitatearen eta transexualitatearen patologizazioaren aurka borrokatu diren transfeministek argi erakutsi digute salto txikia dagoela kontzeptu deskribatzaile-teorikoetatik biologia normalitaterara. Bitartean, loditasunaren diskurtso biologizistak biolentzia ezberdinen elementu legitimatzaile gi-

sa jotzen jarraitzen du, oinarri biologikoa eskainiz lodiok bizi dugun ikusgarritasun faltari eta produkzio kultureko burlari, diskriminazio laboralari, bazterketa afektibo-sexualari edo indarkeria zuzenari eta bullyngari.

Loditasuna anomalia biologikoa da estatistikoki. Kontua da estatistikek ez dutela banakoaren osasun egoera adierazten, erakusten dituzten desbiderapenek ez dute zertan luzarorako biziraupen batekin talkan egon. Funtzio edo egoera biologiko bat izan daiteke anomaloa baina ez disfuntzionala. Adibidez, gizaki batek hiru belarri izatea anomaloa da, baina ez du zertan patologikoa izan. Hots, anomalia oro ez da patologia.

Ez dut lerro hauetan zehaztuko lodiok gaixoa edo anormalak garen; bi bideek irekitzen dituzte aukera interesgarriak. Lodia ez bada subjektu gaixoa, despatologizatu egin behar dugu (borroka homosexual eta transekin egin dugun modu berberean), osasunaren ideia zabaltzeko eta demokratizatuz.

Dena den, gure borroka ezin da izan ez-gaixoen taldean sartzeko eskaera soil. Hasteko, ez dugulako nahi aniztasun funtzionaldunak, autistak eta ihesdun marrikak barnebiltzen ez dituen talde bateko kide izan. Jarraitzeko, loditasun politikoarentzat estrategikoa delako mugimendu criparekin aliantzak egitea gorputz normala, gaitua, produktiboa eta autonomoaren mugak batera arrakalatu ditzakegulako. Eta azkenik OMEk dioenez loditasuna ez den arren gaixotasuna, arrisku faktore garrantzitsua da eta nahitaezkoa ez den arren ohikoa da arazo kardiobaskularrak, diabetesa, lokomozio aparatuan arazoak edo minbizi mota zehatz batzuk pairatzea loditasunaren ondorioz. Izendatu ditudan ezberdintasun horiek guztiek lodien eta argalen artean arrakala mediko bat sortzen badute, berbera konpontzeko ez dugu behar bazterketa, kulpa, marjinalizazioa eta zerbitzuen murrizketa baizik eta medikuntza espezifiko, publiko eta espezializatua.

Borroka antilodifobora batu beharko da osasungintza. Bere lana egin beharko du, ez baldin badu nahi loditasunaren jokatu arraza zientifikoaren naturalizazioan edo LGTBI+ komunitatearen patologizazioan jokatu duen rol berbera. •

BATELERAK

Pasaia munduan famatu egin zuten
portuko langile nekaezinak

 **HISTORIA** / Asier Aiestaran

Indartsuak, ausartak, armak erabiltzen abilak... Garaiko idazle eta bidaiarien kronikak eraiki duten bateleren irudia ez da agian erabat egiazkoa, baina argi dagoena da hainbat mendetan mota guztietako lanak egin zituztela Pasaia badiakoan. Olga Macias EHUKo irakaslearekin saiatu gara emakume haien jarduna hobeto ezagutzen.

Urtero legez, Pasai Donibane-
nek batelerei omenaldia
egingo die igande hone-
tan, San Inazio egunean. Garai
batean Pasaia portuan ho-
rrenbeste lan egindako ema-

kumeak gogoratzeko, batele-
ren desfilea egingo da 11.30ean
hasita, 12.15ean batel estropa-
daren txanda izango da, eta
amaitutakoan zortzikoa dan-
tzatuko da.
Aukera ona da, beraz, batele-
rak zer izan ziren erreparatze-
ko eta euskal kostaldeko histo-

Bateleren omenez Pasai
Donibane Santiago
plazan ikus daitekeen
eskultura.
Jon URBE | FOKU

rian izan zuten garrantzia be-
har bezala goraiatzeko.
«Batelerak deitzen zitzaie-
n batelak erabiltzen zituztelako.
Pasaia bokalean jendea alde
batetik bestera eramatea izan
zen beraien ohiko lana, baina
itsasontziak bokale horretara
heltzen zirenean batelerak
bertara joaten ziren, alde
batetik itsasontzi horietako bi-
daiariak portura eramateko,
eta bestetik merkantziak gar-
raiatzeko, bai portutik ontzie-
tara edo alderantziz, lasta ere
garraiatzen zuten ontzietara,
merkantziak hustutakoan
egonkortasunik gabe geratzen
zirelako... Horrekin lotuta, ga-
barretan ere lan egiten zutela
aipatu behar da, batez ere
merkantziak garraiatzeko era-



biltzen zirenetan. Eta itsasontziak atoian eramaten ere bai, erremolkatzen alegia», deskribatu du Olga Macias EHuko irakasleak.

Emakumeek itsasoko lanean izan duten parte-hartzea sakon ikertu izan du Maciasek, eta batelerek egiten zituzten lanak aipatzearekin batera, galdera bota du. «Esaten zen emakume hauek sekulako abilezia zutela itsasontziak zuzentzeko eta itsas portuan sartzeko. Denetarik egiten zuten, eta hor galdera da zergatik. Zergatik egiten zuten emakumeek horrelako lana?»

Gehien aipatzen den arrazoa gizonezkoek arrantzara urrunera joateko zuten ohitura da, baina Olga Maciasek gogoratzen du ez zela arrantza bakarrik. «Pasaia aldean gizonezkoek bi aukera nagusi zituzten. Alde batetik 'Compañía de las Indias Orientales' izeneko erakundea zegoen. Ameriketara joaten ziren merkantzia garraiatzeko, joan eta etorri, eta kanpainak hiru urtekoak izaten ziren, eta kasu batzuetan Ameriketara bizitzera geratutako pertsonak ere izan ziren. Eta bestetik, arrantzara joaten zirenak zeuden. Iparraldera edo Grande Sole aldera joaten zirenak, balea harrapatzea joaten zirenak, eta noski Ternuara bakailaoa arrantzatzea joaten zirenak. Aurrenekoak urte bateko edo biko kanpainak izaten ziren, eta bakailaoarena sei hilabetekoa», zehaztu du.

«Orduan, gizonezkoak zenbat denbora egoten ziren leho-rran? Ba, oso gutxi. Adibidez Donostian ez zen berdina gertatzen, gehienek kostera deitzen zaion arrantza horretan ibiltzen zirelako. Baina Pasaian gizonezkoen lana normalean luzaroan kanpoan



B. Hennebutte Feilletek grabatua eta Thomas Lyde Hornbrooken lamina. KOLDO MITXELENA KULTURUNEA - GIPUZKOAKO ALDUNDIA

Lehen aipamen idatziak XVII. mendekoak dira. Lope de Vega idazleak 1618an aipatu zituen, «Los ramilletes de Madrid» bere lanean, baina benetan famatu Victor Hugok egin zituen

Filipe IV.a harrituta geratu omen zen 1659an bere gerraontziekin Pasaia bisitatu zuenean. 200 bateletik gora ikusi omen zituen, «denak emakumeek gobernatuak»

ko gremioak zehaztuta, euren artean osatutako elkargoak egiten zuten lana kudeatzeko, soldatak adosteko... Eta gizonek ez zuten inolako ahalmenik hor sartzeko. Hori ere kontuan hartzekoa da. Bilbon ere gertatu zen adibidez zamalari-ekin. Zirgari-ekin ez, baina zamalari-ekin bai. Azpiegitura gremial horiek, sindikatuak sortu aurretik, garrantzitsuak ziren. Estibadoreekin berdina gertatu zen. Gizonak alde batetik eta emakumeak bestetik».

ZERGATIK ZEN DEIGARRIA?

Maciasek dioenez, garai hartan emakumeak portuetan lanean ikustea ez omen zen horren arraroa. «Euskal Herritik kanpo emakumeak zirgari moduan ibiltzen ziren batez ere. Frantzia, Ingalaterra... leku horietako itsas portuetan nahiko ohikoa izan zen emakumeen lana, batez ere horrelako txalupa edo gabarrak garraiatzeko. Eta kanaletan ere bai, Frantzia esaterako. Europa iparraldean, Norvegia, Suedia eta horrelako herrialdeetan ere emakumeek itsas portuetan egiten zuten lana dokumentatuta dago».

Baina orduan zergatik sortzen zuen horrenbesteko harridura batelaren lanak Pasaia bisitatzen zuten garaiko bidaiari, idazle eta agintarien artean? Adibideak asko dira, baina batzuk gogoratzekotan, Lope de Vega idazlea –1618an «las remeros de Pasajes» aipatzen ditu “Los ramilletes de Madrid” bere lanean–, Lope Martinez de Isasti elizgizona –1625ean aipatzen ditu “Compendio Historial de Guipuzcoa” liburuan– edo Marie Catherine LeJumel kondesa –1676an aipatzen ditu bere “Relation du voyage D’Espagne” liburuan– leudeke.

egotea izaten zen. Horrek, noski, hutsune handi bat uzten zuen portuan eta emakumeek bete behar izaten zuten».

Eta kontuan hartu beharreko beste faktore bat itsas portuetan sortzen ziren emakumeen gremioak izango liriteke. «Emakumeen artean gertatzen zen bazeudela hala-



Hala ere, mundu mailan fama Victor Hugok eman zien, 1880an “En voyage. Alpes et Pyrénées” liburua argitaratu zuenean. Bertan Pasaian igaro zuen 1843ko uda deskribatzen du, Julieta Drouet bere emaztearekin batera.

«Ez dakit zergatik egiten zen horren deigarria. Kontuan izan behar da urte horietan bidaiarien liburu horiek zirela jendeak mundua ezagutzeko zuen aukera ia bakarra, eta nolabait mundua aurkezteko modu bat izan zen, ez dut esango mundu imajinarioa, baina bai apur bat poetikoa. Eta horregatik kasu batzuetan egiten den emakumeen deskribapena ez da egiazkoa, ez du zerikusirik benetako emakume langileen egoerarekin», iritzi dio Maciasek.

Izan ere, idatzi horietan egiten zen bateleren deskribapena ez da nolanahikoa. Batele-
rak emakume indartsu eta ausartak zirela aipatzen da, ar-

mak erabiltzen abilezia handi-
koak zirela ere esaten da eta itxura asko zaintzen zutela on-
doriozta daiteke haien arropa eta batelen deskribapenak ira-
kurrita, nahiz eta printzipioz langile arruntak izan eta ez nobleziaren parte.

«Baliteke gizonezkoek ere batelerek egiten zituzten lan batzuk egitea, baina segur aski kanpotik ikusita ez zen horren deigarria. Idatzi horietan agertzen dena emakumeena da, baina ez dakit ziur zergatik. Hor beste gauza bat ere bada-
go: emakumeen esfortzu fisiko-
koa. Lehia sortzea emakumeen artean, ea nor joaten den azkar-
rango, ea nork eramaten duen karga edo pisu gehiago... Esan-
go nuke puntu horretan folklo-
rearekin nahasten dela. Gauza bera gertatu zen arran-
tzaleekin, eta hortik sortu zi-
ren estropadak. Ea nor heldu-
ko den aurrena portura. Lehia hori folklorea gehiago dela esango nuke, emakumeak be-

tidanik egon direlako lanean portuan, arrantzan...»

ERREALITEA ETA KONDAIRA

Gainera, bateleren nondik no-
rakoa ikertzerakoan zaila egi-
ten da askotan errealitatea eta

Uztailaren 31n, San Inazio egunez, omenaldia eskaintzen zaie batelerei Pasai Donibanen. Irudian, zortzikoa dantzatzen. Jon URBE | FOKU

TRAINERUA LEHORREAN BAINA ETORKIZUNERA BEGIRA

Azken urteotan “Batelerak” izena Pasai Donibaneko emakumezkoen traineruak egin du famatu. Garai bateko arraunlari trebeen lekukoa hartuta, bost urtez jarraian Euskotren Liga eta Kontxako Bandera irabaztea lortu zuten pasaitarrek (2014, 2015, 2016, 2017 eta 2018). Urrezko aro hori modu nahiko tristean amaitu zen, arraunlarien eta zuzendaritzaren arteko liskarrak tarteko, eta hiru urtez ETE Ligan aritu ziren “Batelerak”, maila apalago batean. Aurten, ordea, talde arrosak ezin izan du trainerua uretaratu. Otsailean ohar baten bidez jakinarazi zuten ez zituztela Ligak eskatzen dituen gutxieneko etxeko arraunlariak eta ez zutela ETE Ligan parte hartuko. Berri tristea horrelako historia duen klub batentzat. Hala ere, eta esperantzari ate bat irekitzeko, esan behar da beheko mailetan indartsu jarraitzen dutela. Jubenilek, esaterako, bateletan jokatzeko lehiaketa denak irabazi dituzte: Liga nahiz Gipuzkoako, Euskadiko eta Espainiako Txapelketak.

kondaira desberdintzea, eta Olga Maciasek adibide deigarriak ekarri ditu gogora. «Zugarramurdiko epaiketa eraman zuen inkisidore berak, Pierre de Lancre izenekoak, esaten zuen emakume hauek deabruarekin halako itunen bat zeukatela eta gai zirela marreak aldatzeko eta enbatak sortzeko. Eta Zokoko enbata aipatzen zuen. Ez dakit zenbat pertsona hil ziren eta inkisidore honek esan zuen bateleren errua izan zela».

«Eta gero, frantziarrekin izan ziren gudetan famatua da arkabuza hartu eta tiroka hasi zen bateleraren kasua. Tiroka hil omen zuen soldadu bat. ‘Character agresivo’ zeukatela esaten dute. ‘Tiradoras de arcabuces de gran fuerza...’ diote XVII. mendean. Historialari batzuek esan dute asmakizunak direla, aipatu izan da ere gizonezkoak ote ziren emakumezko jantzita... Azken batean askotan ezin da frogatu egia den ala ez», dio Maciasek.

Espainiako erregeekin izandako pasadizoak ere famatuak dira. Filipe IV.ak Madrilera eraman nahi izan omen zituen batelera batzuk, bertan zeukan urmaelerako, baina ezezkoa jasotzen omen zuen. «Hau oroimen historikoa da eta batzuetan horrelako bitxikeria deigarriekin geratzen gara eta errealitatea ahazten dugu eta estalita geratzen da. Badugu joera horrelakoekin geratzeko», salatu du azkenik Olga Macias EHU-ko irakasleak.

Pasaia herriarrek, ordea, argi dute ez dituztela ahaztu nahi portuan horrenbeste lan egin zuten emakume haiek, eta igandekoa beste aukera eder bat izango da haien historia gogoratu eta emakumeek itsasoko lanean izan duten garrantzia aldarrikatzeko.

Anekdotikoa ohiko bihurtzen denean

**Miren Azkarate
Badiola**

47 gradu markatzen zizkidan aurreko batean kotxeko termometroak bertara sartu nintzenean. Eguzkitan zegoen, bai, baina auto kanpoan ere ez pentsa tenperatura askoz ere freskoagoa zenik, 43 irakurri bainuen bideko farmazia batean eta hura itzale-tan zegoen. Bero sapa pairatu dugu Euskal Herrian egun dextentetan jarraian eta ez zeuden pozik ezta nire kuadrillako batzuk ere, sarri hemengo klima hotz eta euritsuaz kexatzen diren horiek!

Horrelako egunetan beti gogoratzen ditut kubatarrak eta hauen «*ahorita mismo, mi amor*» edo andaluzen «*oju, que calor quillo!*». Eta orduan ulertzen dut

hauen erritmo pausatua edozer egiteko. Ezin da beste modu batera funtzionatu!

Orain arte, anekdotikoak edo gutxiengoak dira horrelako egun beroak, baina nabari da azken urteotan etxean ere eguraldia ez dela betikoa; ez udan, ez neguan, ez eta beste urtarotetan ere. Gero eta bero egun gehiago ditugu, tenperatura altuagoak, elur eta euri gutxiago egiten du gurean... Maizago entzuten dugu gure herrietan ur mozketak ditugula, urtegiak hutsak daudela, suteak batez ere Nafarroan gero eta sarriago eta bortitzaagoak...

Aspalditik dugu abixua klima aldaketa bazetorrela eta etxe atariraino sartu zai-

gu honezkero. Jada ez da ez dakit nongo glaziarra erori da edo ez dakit nongo lehorteak. Ez, ez, hemen dago eta okerrera egingo du guztiak. Gure lurak ere aski esan du! Ezin du gehiago jasan!

Berandu goaz oso, baina hala ere, ez dugu ezer egin behar? Askotan, urruti ikusten dugunean afera edo arazoa, ez dugu ezer egiten, baina gu ukitzen gaituenean bai. Ba, momentu hori hau da. Inoiz ez omen da berandu. Bestela, gure belaunaldikoak agian libratuko gara edo anekdotikoa izaten jarraituko du. Baina zuen auzo eta herrietako haurrentzat egunerokoa bilakatuko da. Eta ez dugu hori nahi, ezta? •

Memoria kontuak

Antton Izagirre

Bero joan da uztaila. Askotariko suteak izan ditugu. Meteorologiari lotuak eta bestelakoak. Ekonomia eta lan arlokoak bero iragartzen zaizkigu. Politika eta elkarbizitzari dagozkion gaietan suak no-nahi dira: espresuki piztuak batzuk, itza-lezinak besteak, iraunkorrak eta iragan-korrak, atzokoak eta gaurkotuak. Memoria kontuak dira.

Batetik. Miguel Angel Blanco ETak hil zueneko urteurrena ez da oharkabea igaro. Egun seinalatuaren aurreko eta ondorengo egunetan egin diren ekitaldiak, memoria eta oroitzapenaren ekimenetik harago, karga politiko handiko ekitaldi bilakatu dituzte.

Komunikabideek eta bereziki Euskal Irrati Telebistak eman dion trataera oso esanguratsua izan da. Askok garbi utzi nahi izan digute egun haietako gertakari

lazgarri, mingarri eta saminen gainetik, egun haien oroitzapen, irudi eta hitzek badutela erabilera politikorako karga erantsia. Orduko hura oroitu eta berriro gerta ez dadin konpromisoak hartzeko baino gehiago, gaur egungo testuinguru politikoan eragiteko asmoarekin erabiliak izan direla ez dago zalantzarik, okasiorako, indar politiko eta juridiko guztiak berriro martxan jarri baitituzte.

Etekin politikoak nahiago bizikidetzaren izenean. Bizikidetzak eskatzen duen biktima guztien aitormena egitetik urrun gaudela garbi ikusi dugu: biktima batzuen memoriak toki berezia duen bitartean, beste batzuen ahanzturan erortzen utzi nahi da.

Bigarrenik. Komunikabide eta indar politiko horiek talde batek Ertzaintzako kide bat Mutrikuko festetan baztertu izana edo Gasteizko eraso bizikidetzaren

izenean arbuiatu dute. Aukera proposa epe motzeko erabilera politikorako. Pertsona horiek festetan libreki parte hartzeko duten eskubidea aitortuta, begirada luzeko irakurketa egin beharko lukete agintariak, iraganean eta egun Ertzaintza gazte horiekiko izaten ari den jarrera errepresiboaz memoria egin eta norabidea moldatzeko.

Hirugarrenik. Joan zen asteburuan Parrot eta Esnaen bizitza osorako kartzela tzearen aurka egindako blokeo ekintza, gure memoria astintzetik harago, giza eskubideen aldeko borrokan euskal gizartearen sektore zabal batek hartu duen konpromisoren lekuko izan dugu.

Eta gehiago. Bizikidetzaren desio bat da, baina memoria inklusiboa, osoa, izan ordez herrena baldin bada, errealitate ez baizik disputerako lelo bilakatuko zaigu. •

**Nagore Barrena Orueechebarria**

Donostiako Informatika Fakultateko irakasle eta ikerlaria, UPV/EHU

Zientziaren demokratizazioa

Adimen artifiziala oso arlo teknikoa da, eta bere erabilera ez-adituentzat ezinezkoa edo gaitza da. Baina aldi berean izugarri aberatsa eta boteretsua da, bestelako ikerkuntza arloak bizkortzeko gaitasuna duelarik. Zehazki, gaur egun, adimen artifizialean paradigma den Deep Learning¹ (hemendik aurrera DL) edo ikasketa sakonari esker lortutako sistemak bestelako arloetako ikerlari-entzatzat izugarri baliotsuak dira.

Adibidez, DL teknikak erabiliz, irudi mediko batean melanomak adituek baino hobeto detektatzeko gai den sistema garatzea lortu da. Aldi berean, proteinen tolestea iragartzen duten sistemak ere lortu dira; funtsezkoa da biologoentzat toleste honen informazioa izatea. Fisikaren arloan ere, fusio nuklearreko erreaktoreetan plasma egonkortzeko gai den sistema garatu da. Kalkulu zentro handietako energia berriztagarrien kudeaketa eraginkorra, medikamentu berriak diseinatzea edo testua emanda irudi errealistak sortzeko gai diren sistemak ere lortu dira gaur egungo adimen artifizialeko teknikei esker.

Baina, aipatu bezala, sistema hauen garapenak aditua izatea eskatzen du. Gainontzeko arloetako ikerlari-entzatzat, gaur egungo adimen artifizialaren gaitasunaz baliatzeko, eskura izan behar dute teknika hau: demokratizatu egin behar da adimen artifiziala.

Horren adibide, ZeroCostDL4Mic² proiektua aurkeztea gustatuko litzaidake. Honen helburua, hain zuzen ere, DL teknikak mikroskopiaren domeinuan erabilgarri eta eskuragarri egitea da, adimen artifizialean zein programazioan adituak ez diren erabiltzaileentzako.

Mikroskopia zelulak bistaratzea, hauen egitura ezagutzea eta beraien

funtzioa ikastea ahalbidetzen duen teknika da³. Mikroskopia arloko aurrerakuntzak, biologoei zein medikuei ikerkuntza zein diagnosi lanetarako baliagarri den informazio kopuru ikaragarria eskura izateko aukera ematen die.

Horrela, ZeroCostDL4Mic proiektuari esker, ikerlari-entzatzat mikroskopia irudiei DL teknikak aplikatu diezazkietekete zuzenean, garapen prozesua ekidinez. Aplikazio horren ondorioz, automatikoki ataza desberdinak egikari dezakete: biopsia lagin batetik minbizidun zelulak hautematea, 2D edo 3D irudi baten ehun bateko organulu indibidualak identifikatzea, zelula desberdinak sailkatzea, infekzioak antzematea edo irudiei zarata ezabatzea, besteak beste. Ataza automatiko hauek lana erraztu eta denbora aurrezten diete ikerlari-entzatzat, beraien ikerketa prozesuak azkartuz.

Gaur egun, ZeroCostDL4Mic proiektuan dagoeneko 30 kolaboratzailek hartzen dute parte, adimen artifizialean aditu eta garatzaileak, (EHUko Informatika Fakultateko

hainbat kide barne). Hauek hainbat ataza garatu dituzte, eta eskuragarri utzi ez-adituen probetxurako. Biologia zein medikuntzako ikerketa proiektuetan ohikoa bihurtzen ari da ZeroCostDL4Mic-en erabilpena, eta adimen artifizialaren demokratizazioaren adibide bihurtu da.

Zientzia eta teknologiaren demokratizazioaren garrantziaz jabetzeko proiektu egokia da hau. Lan egin dezagun, batez ere ikerketa prozesuetan, noski, baina baita ere ikerketa horiei esker lortzen diren aurrerapenak adituak ez direnen eskura uzten. •

¹LeCun, Y., Bengio, Y., & Hinton, G. (2015). Deep learning. Nature, 521(7553), 436-444.

²Von Chamier, L., Laine, R. F., Jukkala, J., Spahn, C., Krentzel, D., Nehme, E., ... & Henriques, R. (2021). Democratizing deep learning for microscopy with ZeroCostDL4Mic. Nature communications, 12(1), 1-18.

³The University of Edinburgh (March 6, 2018). "What is Microscopy?". The University of Edinburgh. Retrieved April 9, 2018.




DL sistemak aukera asko zabaldu ditu medikuntzan, esaterako.

CHINNAPONG | GETTY IMAGES

BEHATXUL[📷]TIK

Juantxo EGAÑA



EGILE EZEZAGUNA. MAISON PIERRE LOTI. ROCHEFORT.

PIERRE LOTI HENDAIAN, HONDARTZAKO FRONTOIAN

Pierre Loti 1850eko urtarrilaren 16an jaio zen Rocheforten, familia protestante batean. Bere anaiak eraginda, Bresteko Itsas Eskolan sartu zen eta 1881ean Hendaian jarri zuen bere bizilekua, Bidasoan kokatutako «Javelot» kostazainaren komandante izendatu zutenean. Garai horretan ezagutu zuen Otharre pilotaria, eta Lotik honela definitu zuen: «Lagun eta kontrabandista». Hortik datorkio pilotarekiko zaletasuna, 1897an Lotik Hendaian hondartzako frontoian egindako argazkietan agertzen den bezala, testu hau ilustratzen duena kasu. 1897an idatzi zuen, halaber, bere lanik ezagunenetako bat, "Ramuntxo", 1938an lehen aldiz zinemara eramana izan zena. Hamaika irudi utzi dizkigu bere bidaiei buruz; Palestina, Senegal eta Turkia, besteak beste. Bisitatzen zituen herrialde horietan bertako janzkerarekin argazkiak atera zituen. Hendaian hil zen 1923an.

GAUR8 ireki gure leihoa

